

ZILARREZKO EKONOMIARAKO BIZKAIA PROGRAMAREN OINARRIAK 2023- 2024KO IKASTURTERAKO

XEDAPEN OROKORRAK

Bizkaia Talent irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta ondo baino hobeto prestatutako pertsonak bertan geratzeko, erakartzeko eta inplikatzeko baldintzak eta prozesuak bultzatzea eta suspertzea dauka helburu eta, horretarako, Bizkaiko erakundeen berrikuntzaren eta jakintza aurreratuaren arloak sustatzen ditu.

Honako hauexek dira Bizkaia Talent eratzen duten bazkideak: Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK), BEAZ, CIC bioGUNE, Tecnalía, Iberdrola, Idom, ITP Aero, Mondragon, Sener, Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Bizkaiko Foru Aldundia. Gainera, azken instituzio horretako Ekonomia Sustatzeko Saila da elkarteburua.

Esparru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak Zilarrezko Ekonomiarako 2023-2024ko Bizkaia Programaren beste deialdi bat aurkezten du, Bizkaia Talentek kudeatuko duena, eta ondo baino hobeto prestatutako pertsonak ditu xede, unibertsitateek Bizkaian zilarrezko ekonomiaren sektorean emandako prestakuntza espezializatua egin dezaten eta, horrela, euren gaikuntza hobetu dezaten eta egoera global berrira hobeto egokitu daitezen.

Gizarte modernoan bizi-luzetasuna handiagoa denez, enplegu berriaren sorrerarako aukera sozioekonomikoak daude, jakintzaren zein ikerketaren arlo berriak garatzeko eta balio erantsi handiko eta talentuaren zein inbertsioaren erakarpenerako jarduera ekonomiko berritzaileak bultzatzeko. Alde horretatik, Bizkaiko Foru Aldundiko **Bizkaia Egiten Planean** lehenetsitako estrategien barruan, **NIC - Nagusi Intelligence Center** sortu da, eta zentro horrek zilarrezko ekonomiaren arloan jarduera-sektore berria garatzeko aukera bihurtuko du biztanleen zahartzapenaren erronka. Horrela, talentua eta berrikuntza sustatuko dira, adinekoen premiei eman beharreko erantzun moduan kalitateko enplegu jasangarria sortzen laguntzeko.

Zilarrezko ekonomia adinekoen premiei erantzuten dieten jarduera ekonomikoen multzoa da, adinekoek zuzenean erositako ondasunak zein zerbitzuak, sektore publikoa eta lotutako zeharkako jarduera ekonomikoa kontuan hartuta.

Zilarrezko ekonomiaren aldeko apustua egitean, biztanleen zahartzapena Bizkaiko gizartea eta ekonomia garatzeko aukera on bihurtzen da, zahartzapenak eskaintzen dituen abaguneei onura ateratzen zaie-eta.

Zilarrezko Ekonomiarako 2023-2024ko Bizkaia Programak zilarrezko ekonomiaren sektorean prestakuntza, jakintza eta gaitasunen garapena ahalik eta maila handienera sustatzea du helburu, Bizkaiak profesional prestatuak eduki ditzan eta biztanleen zahartzapenaren erronkak eta horrekin lotutako produktuen zein zerbitzuen eskaera handiagoak sorrarazten dituen premiei erantzuteko gai izan daitezen.

Ekimen berri honen bidez, Bizkaia Talentek zilarrezko ekonomian garapen-bidean dagoen sektoreak eskaintzen dituen aukerak suspertzea dauka helburu, adinekoen bizi-kalitatean eragina, eragin ekonomikoa eta eragin soziala sortzeko.

Kalitateko prestakuntza eskaintzeko orduan, funtsezkoa da tokiko instituzioek eta unibertsitateek elkarrekin lan egitea. Hori dela eta, unibertsitateek Bizkaian aliatu moduan duten zeregina suspertu beharra dago, eta, horretarako, harremanetarako epe luzeko esparru egonkorra sortu behar da, Bizkaiko garapenean eta etorkizuneko oparotasunean laguntzeko. Horretarako, lehentasunezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiaren lan-ardatz nagusiak jorratzea, haietako bat zilarrezko ekonomia dela kontuan hartuta.

1. HELBURUA

Programak ondo baino hobeto prestatutako pertsoneri eman nahi die **zilarrezko ekonomiaren sektorearekin** lotutako prestakuntza espezializatua egiteko aukera.

Horretarako, horren kostuaren finantzaketa partziala emango die, sektorearen eraldaketa bultzatzeko eta adinekoen premiei erantzuteko.

2. ONURADUNENTZAKO ESKAKIZUNAK

Honako eskakizun hauek betetzen dituzten pertsona fisikoek parte hartu ahal izango dute Zilarrezko Ekonomiarako 2023-2024ko Bizkaia Programan:

1. Zilarrezko ekonomiarekin lotutako jakintzetan sakondu nahi dutenak, betiere, honako eskakizun hauetakoren bat betetzen badute:
 - a) Bizkaian jaiotakoak izatea.
 - b) Auzotasun administratiboa Bizkaian edukitzea eta eskabideak aurkezteko epea ireki aurre-aurretik 12 hiletik gorako antzinasuna edukitzea. Dena dela, zenbaketa horren inguruko salbuespenak onartu ahal izango dira, ikasketengatik edo lanagatik izangaiak aldi batean Bizkaitik kanpo bizi behar izan badira.
 - c) Gradu ikasketa guztiak Bizkaian dagoen unibertsitate batean egin izana.
 - d) Bizkaiko Lurralde Historikoarekin dituzten sustraiak sustatzeko moduko elementu pertsonal edo profesionalak edukitzea.
2. Eskabidea egitea eta onartuak izatea, 2023-2024ko ikasturtean zilarrezko ekonomiako espezializazio-masterreko ikasketak egiteko (2023an masterra egiten hasi diren ikasleak), betiere, oinarri hauetako 3. puntuan (finantzaketaren helburu diren masterren azalpena) zehaztutako betekizunak betetzen badituzte.

3. FINANTZAKETAREN HELBURU DIREN MASTERREN AZALPENA

1. **Bizkaian** dagoen unibertsitate batek emandako masterrak.
2. Masterra **2023-2024ko** ikasturtean garatu beharko da.
3. Unibertsitate-masterreko tituluan, **60 ECTS kreditu** egin beharko dira gutxienez.
4. Masterren %60 aurrez aurrekoa edo erdipresentziala izan beharko da gutxienez.

5. Hautatu daitezkeen unibertsitate-masterretako irakas-programa zilarrezko ekonomiako espezializazioa sortzeko egon beharko da diseinatuta. Horretarako, honako faktore hauek sustatu beharko dituzte, besteak beste: produktu, zerbitzu, teknologia edo arreta-eredu berriak garatzea; zilarrezko ekonomiaren inguruko datuak aztertzea; sektore ekonomiko honetako ekintzailatza suspertzea; kudeaketa soziosanitarioa hobetzea; bizi-kalitatea hobetzea; edo zahartzapen osasungarria bultzatzea.

Finantzaketa lortu ahal izateko, hurrengo eskakizunetakoren bat bete beharko dute master horiek:

- Unibertsitate-masterrek norberaren autonomia sustatzeko moduko jakintzak eta tresnak eskaini beharko dituzte. Irtenbideak eta teknologia berriak garatu beharko dituzte, zahartzapen aktiboa bultzatzeko eta adinekoen hauskortasuna, mendetasunaren eragina eta gabeziak murrizteko.
- Unibertsitate-masterrek enpresaren edo ekintzailatzaren arloko proiektu berrien sorrera bultzatu beharko dute, baita enpresetako negozio-lerro berriak ere, biztanleen zahartzapenaren erronkagatik sortzen diren axutei eta premiei erantzuteko.
- Unibertsitate-masterrek zilarrezko ekonomiaren arloko jakintzak eskaini beharko dituzte, datu soziosanitario ugariak eskuratzeko, biltegitratzeko, estatistikari begira eta modu aurreratuan aztertzeko eta bistaratzeko orduan. Horretarako, Adimen Artifizialak eta Big Datak eskaintzen dituzten tresna aurreratuenak erabili beharko dira, biztanleen zahartzapenaren ondorioz sortutako premiei erantzuna emateko.
- Honako hauxe izan beharko da unibertsitate-masterren helburua: arreta gerontologikoarekin lotutako diziplinarteko jakintza eskuratzeko. Era berean, honako arlo hauei buruzko jakintzak eskaini beharko dituzte:

zahartzapenarekin lotutako egituren zein eginkizunen ebaluaziorako eta diagnostikorako sistemak; eta adinekoentzako nahiz zaintzaileentzako programak, jarduketa-estrategiak eta prozedurak.

- Honako hauxe eskaini beharko dute unibertsitate-masterrek: arlo soziosanitarioko lidergoari zein kudeaketari buruzko jakintzak, haiekin lotutako tresnak nahiz teknikak eta kudeaketa soziosanitarioko berrikuntza sustatzen duten funtsezko elementuak.

4. ZUZKIDURA EKONOMIKOA, LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ONURADUNEN KOPURUA

2023ko deialdiko beketarako zuzkidura ekonomikoa 232.200 €-koa izango da guztira. Izangai onuradunen kopurua ahalik eta handiena izango da eskabideetan aipatzen diren unibertsitate-masterren zenbatekoen arabera. Masterra finantzatzeko orduan onuradun bakoitzak jasoko duen banakako zenbatekoa egin beharreko masterraren matrikularen zenbatekoaren %50ekoa izango da; eta gehieneko muga, 6.000 €-koa.

5. DEIALDIKO EPEAK

Eskabideak aurkezteko epea martxoaren 1eko 14:00etan hasi eta hurrengo inguruabarretakoren bat gertatu arte iraungo du:

- a. Erabilgarri dagoen aurrekontua agortzea.
- b. Eskabideen kopurua edota eskuragarri dauden beste datu batzuk kontuan hartuta, erabilgarri dagoen aurrekontua agortu egingo dela ulertzea.
- c. Bizkaian masterretako prestakuntzan dagoen eskaintza eta eskaintza horren eskaria kontuan hartuta, Bizkaia Talentek deialdia amaitutzat jotzeko edota oinarri hauen edukia aldatzeko erabakia hartzea.
- d. **2023ko urriaren 30eko 14:00etara** iristea.

Eskabideei buruzko azken ebazpena 2023ko azaroaren 30ean hartuko da.

Bizkaia Talentek fase bakoitzeko epeak luzatu ahal izango ditu programaren premien arabera.

6. ESKABIDEA EGITEKO PROZESUA

6.1. ESKABIDEARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

Deialdi honekin lotutako informazioa hemenxe egongo da eskuragarri: <http://www.bizkaiatalent.eus>

Zilarrezko Ekonomiarako 2023-2024ko Ikasturteko Bizkaia Laguntza Programan parte hartu nahi duten izangai hautagarriek laguntza eskatu ahal izango dute, honako hauexen bitartez eskabidea behar bezala aurkeztu ahal izateko: posta elektronikoz (bizkaiaeconomiplateada@bizkaiatalent.eus), telefonoz (+34 94 479 54 28) edo aurrez aurre, Bizkaia Talenteko bulegoan aurretiazko hitzordua eskatu ondoren.

Eskabideak 2023ko **urriaren 30eko** 14:00etara arte bidali ahal izango dira, eta Zilarrezko Ekonomiarako 2023-2024ko Bizkaia Programara aurkezteko beharrezkoak diren agiriak atxiki beharko dira bertan.

Bizkaia Talentek beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu ebaluazio-prozesuko edozein unetan, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu eta balioetsi ahal izateko.

Eskatzaileek prozesu osoan aurkeztutako informazioaren edota agirien benetakotasunaren eta egiazkotasunaren gaineko erantzukizuna izango dute.

6.2. ESKABIDEEN AURKEZPENA

Eskabidea eta eskatutako agiriak e-postaz baino ez dira aurkeztuko posta elektronikoko helbide honetan: bizkaiaeconomiplateada@bizkaiatalent.eus

Izangaitza gauzatzeko, honako hauxe adierazi beharko da mezu elektronikoaren gaiari: **Zilarrezko Ekonomiarako Bizkaia Programa: eskatzailearen izena eta 2**

abizen. Eskabidearen mezu elektronikoaren gorputzean, honako hauxe jarri beharko da: eskatutako laguntzaren helburu den master zehatzaren izena osorik, unibertsitatea eta non ematen den. Horrez gain, oinarri hauetako 7. puntuan (laguntza eskatzeko derrigorrezko agiriak) zehaztutako agiriak atxiki beharko dira.

7. LAGUNTZA ESKATZEKO DERRIGORREZKO AGIRIAK

Eskatzaileek sartutako datuen eta eskatutako agirien nahiz haien egiazkotasunaren gaineko erantzukizuna izango dute, baita datu garrantzitsuak ez aipatzeagatikoa ere.

Honako agiri hauek atxiki beharko dira eskabidearen mezu elektronikoan:

- 1) NANaren edo AIZren fotokopia.
- 2) Bizkaian jaio ez direnek honako hiru agirietakoren bat aurkeztu beharko dute:
 - a. Agintaritza eskudunak egindako errolda-ziurtagiri eguneratua, 12 hilabetetik gorako antzintasuna egiaztatzeko.
 - b. Unibertsitateak egindako agiria, izangaiak aurretiazko ikasketak Bizkaian dagoen unibertsitate batean egin dituela ziurtatzeko (izangaiak Bizkaian 12 hilabetetik gorakoa den auzotasun-administratiboa egiaztatzerik ez duenean bakarrik ebaluatuko dira agiri hau aurkezten duten eskabideak).
 - c. Oinarri hauetako 2.1.d. puntuaren arabera, izangaiak Bizkaiarekin dituen sustraiei buruzko azalpen laburra (izangaiak Bizkaian 12 hilabetetik gorakoa den auzotasun-administratiboa egiaztatzerik ez duenean eta unibertsitateko ikasketak Bizkaian dagoen unibertsitate batean egin ez dituzenean bakarrik ebaluatuko dira agiri hau aurkezten duten eskabideak).
- 3) Bankuko titularitatearen ziurtagiria. Honako hauxe agertu beharko da agirian: titularraren izena, kontu-zenbakia eta banku-erakundeko bulegoaren zigilua.
- 4) Norberaren Datuak Babesteko Klausula (I. ERANSKINA): izangaiaren izena eta bi abizenak zein diren adierazten duen ale sinatua.

- 5) Zinpeko adierazpena: eskabidean, honako hiru agiri hauetako bat erantsi beharko da, izangaiak deialdi honen helburu bererako beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso dituen, jaso ez dituen edo ebazpenaren zain dagoen kontuan hartuta:
- Programa honen helburu bererako **beste laguntza batzuk jaso ez dituela eta beste laguntza batzuei buruzko ebazpenaren zain ez dagoela** azaltzen duen zinpeko adierazpena (II. ERANSKINA): izangaiaren izena eta bi abizenak zein diren adierazten duen ale sinatua.
 - Programa honen helburu bererako **beste laguntza batzuk jaso dituela** azaltzen duen zinpeko adierazpena (III. ERANSKINA): izangaiaren izena eta bi abizenak zein diren adierazten duen ale sinatua. Laguntza zer erakundek eman duen eta zenbatekoa izan den adierazten duen agiri ofiziala aurkeztu beharko da.
 - Programa honen helburu bererako **beste laguntza batzuk eskatu dituela eta ebazpenaren zain dagoela** azaltzen duen zinpeko adierazpena (IV. ERANSKINA): izangaiaren izena eta bi abizenak zein diren adierazten duen ale sinatua. Laguntza zer erakunderi eskatu zaion eta zenbatekoa izango den adierazten duen agiri ofiziala aurkeztu beharko da.
- 6) Unibertsitate-masterra egiteko guztira ordaindu beharreko zenbatekoaren egiaztagiria, hurrengo bietako edozein izan daitekeela kontuan hartuta:
- Aurrematrikularen kopia edo unibertsitateak egindako ziurtagiria, Bizkaian dagoen unibertsitate batek 2023-2024ko ikasturtean zilarrezko ekonomiaren arloan emango dituen espezializazio-masterreko ikasketak egiteko asmoz izangaia onartu duela egiaztatzeko. Agirian, masterreko ikasketa horiek egiteko **izangaiak guztira benetan zenbat ordaindu beharko duen agertu** beharko da. Kasu honetan, Bizkaia Talentek onuraduntzat hartu ahal izango du izangaia, baina programa honetako laguntzaren zenbatekoa ez da ordainduko harik eta izangaiak matrikularen kopia bidaltzen duen arte (oinarri hauetako hurrengo puntuan eskatutako agiria).

- Matrikularen kopia edo masterra ematen duen unibertsitateak onarpen ofizialari buruz egindako ziurtagiria, izangaia onartu egin duela egiaztatzeko. Agirian, Bizkaian dagoen unibertsitate batek 2023-2024ko ikasturtean zilarrezko ekonomiaren arloan emango dituen espezializazio-masterreko ikasketa horiek egiteko **izangaiak guztira benetan zenbat ordaindu duen agertu** beharko da.

8. HAUTATZEKO PROZESUA

Laguntzak esleitzeko hautaketa-sistema honako irizpide hauen arabera egingo da:

- a. Fondoak eskabideen erregistroaren hurrenkeraren arabera banatuko dira. Jasotako eskabidearen mezu elektronikoa adierazitakoa izango da data.
- b. Deialdian zehaztutako eskakizunak betetzen dituzten eskabide guztiei emango zaie laguntza, harik eta aurrekontu erabilgarria agortu arte edo deialdiaren indarraldia amaitu arte edo, hala badagokio, deialdia aldeztatik itxi arte.
- c. Posta elektronikoa honetan jasotako eskabideak baino ez dira onartuko: bizkaiaeconomiaplateada@bizkaialent.eus

Agiriren bat aurkeztu ezean, Bizkaia Talent izangaiarekin jarri ahal izango da harremanetan, deialdiko epearen eta bertako langileen prestasunaren arabera hori egiterik badago.

Akatsen bat ikusten badute, izangaiak kasuan kasuko jakinarazpena bidali ahal izango dute hona: bizkaiaeconomiaplateada@bizkaialent.eus

Zilarrezko Ekonomiarako Bizkaia Programako laguntzak bateragarriak izango dira Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutan edo nazioarteko edozein erakundetan helburu bererako dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin. Hala ere, ez dute finantzatutako masterraren kostua inolaz ere gaindituko, ez isolatuta ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Programa honetako laguntza eman ostean, zenbateko hori gaindituko balitz, soberakinari dagokion kopuruan murriztuko da laguntza.

Zilarrezko Ekonomiarako Bizkaia Programaren helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso dituzten eskabideak *ad hoc* ebaluatuko dira.

Jakin bezain laster, onuradunek Bizkaia Talenti jakinarazi beharko diote diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela, eta, hala badagokio, egindako itzulketaren gutunaren kopia aurkeztu beharko dute.

9. ESLEITZEKO PROZEDURA

Esleipenerako araubidea konkurrentzia soilarena izango da. Deialdi honetako 6.2. puntuan adierazitako sistemaren bidez aurkeztutako hurrenkeraren arabera hautatuko dira eskabideak, betiere, deialdi honetako oinarrietan zehaztutako eskakizunak betetzen badituzte.

- Zuzkidura ekonomikoaren atalean zehaztutako 232.200 euroko zenbatekoa izango da eman beharreko laguntza guztien muga.
- Bizkaia Talentek eskabide bakoitza jaso duela e-postaz jakinaraziko du ahalik eta lasterren, jasotako eskabide guztietan. Mezu elektronikoko hori jaso ezean, programan parte hartu nahi duenak jakin egin behar du bere mezu elektronikoa prozesatu ez dela eta, horren ondorioz, programako izangaien zerrendan ez dagoela.

10. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Programarako eskabidea aurkeztuz gero, deialdiko oinarri hauetan xedatutakoa onartu beharko da.

Honako hauxe egin beharko dute onuradunek:

- a) Bekaren esleipena jakinarazi osteko bost laneguneko epean beka onartzeko agiria sinatzea, betiere, salbuespenezko inguruabarrengatik beste gauza bat hitzartzen ez bada.
- b) Masterra egiten duen unibertsitateko jardunbide-arauei men egitea.
- c) Bizkaia Talenti programaren helburu onaren lorpenean eragina duen edozein gorabeheraren berri ematea.

11. ONURADUN-IZAERAREN GALERA

- a) Programako onuradun-izaera amaitu egin ahal izango da, programa bera bukatu egiten delako eta, horrez gain, onuradunak berak berariaz uko egiten diolako. Era berean, izangai-izaera ere galdu ahal izango da, betebeharrak ez betetzeagatik eta masterreko titulua ez lortzeagatik.
- b) Oinarri hauek betetzen ez badira, edozein unetan gertatzen dela ere, zuzenean ezeztatuko da programa, eta, halakoetan, lortutako laguntza itzuli beharko du onuradunak. Onuradunak aipatutako konpromisoak (edo programako baldintzetan adierazitako beste edozein) betetzen ez baditu, programak behar besteko eskubidea izango du, egokitzat jotzen duen bezala jokatzeko, eta eskura dituen legezko bideak erabili ahal izango ditu horretarako.
- c) Ukoagatik edo, oro har, ez-betearazpenagatik programako onuradun-izaera galduz gero, onuradunek sortu ez diren eskubide ekonomiko guztiak galdu ahal izango dituzte, eta, era berean, BFAk sustatutako edozein programatan hautatuak izateko etorkizuneko prozesuetatik kanpo ere geratu ahal izango dira (behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik; esate baterako, istripua, gaixotasuna...).

I. ERANSKINA

NORBERAREN DATUEN BABESERAKO KLAUSULA

Datuen Babesari buruzko 679/2016 Araudi Orokorrean eta Norberaren Datuen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan zehaztutako informazio-betebeharra betetzeko asmoz, **jakinarazi egiten dizugu honako honexen erantzukizunpean tratatuko direla zure datu pertsonalak:**

Tratamenduaren arduraduna: Bizkaia Talent (Eraberrikuntza Eta Ezagutzan Adituak Diren Pertsonen Mugikortasuna Sustatzeko Elkarte)

IFK: G95326583

Helbide soziala: Bizkaiko Parke Teknologikoa, 804. eraikina, 300. modulua, Laga Bidea, 48160 Derio.

Harremanetarako e-posta: bizkaiaeconomiaplatea@bizkaiatalent.eus

Tratamenduaren helburuak: prozesu honetan www.bizkaiatalent.eus webgunearen edo **e-postaren** bidez ematen dizkiguzun datuak honako honexetarako tratatuko dira:

- Zure profila egokia den ebaluatzea, Zilarrezko Ekonomiarako Bizkaia Programako laguntza eskuratzeko.
- Zure izangaitzaren egoerari buruzko informazioa bidaltzea.
- **Bizkaia Talentek** garatzen dituen jardueri eta programei buruzko jakinarazpen elektronikoak bidaltzea.

Oinarri juridikoa

- 6.1.b. artikulua. Kontratuaren betearazpena.

Zu alderdi interesdun moduan zaituen kontratua betearazteko orduan beharrezkoak direlako tratatzen dira.

- 6.1.a. artikulua. Interesdunaren baimena.

Zilarrezko Ekonomiarako Bizkaia Programara izangai moduan aurkeztean eta Programarako zehaztutako eta Bizkaia Talenten webgunean argitaratutako oinarriak onartzean zuk ematen duzun **berariazko baimenaren** arabera.

Datuak gordetzea: zure datuak **Bizkaia Talenten** datu-baseetan sartu eta biltegitatu egingo dira, eta jasotzen direnetik 5 urteko epean gordeko dira gutxienez.

Zure eskubideak: zeure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta haien tratamendua mugatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzu tratamenduaren arduradunaren aurrean. Horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko duzu rgpd@bizkaia.talent.eus posta elektronikora, zer eskubide erabili nahi duzun adierazi beharko duzu bertan eta zeure NANaren edo agiri baliokidearen kopia atxiki beharko duzu.

Gure pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago nahiz izanez gero, sartu hemen: <https://www.bizkaia.talent.eus/politica-de-privacidad/>

Bizkaia Talentek antolatutako ekitaldiren batean izena ematen baduzu, onartu egiten duzu Bizkaia Talentek edo Bizkaiko Foru Aldundiak bertan hartzen dizkizuten irudia eta ahotza erabiltzea ikus-entzunezkoen sorreran, euren sare sozialetan edo komunikabideetan zabaltzeko eta sustapen zein merkataritza arloko helburuak betetzeko. Ados ez bazaude, mezu elektronikoa idatzi rgpd@bizkaia.talent.eus eta bizkaiaeconomia.plateada@bizkaia.talent.eus helbideetara.

Informazio gehiago lortzeko, gure pribatutasun-politika bisitatu besterik ez duzu.

II. ERANSKINA
ZINPEKO ADIERAZPENA
EZ DA BESTE LAGUNTZARIK JASO EDO ESKATU

IZEN-ABIZENAK:

NAN/AIZ: _____

_____ jaunak/andreak,
_____ zenbakidun NAN/pasaportea duenak, Zilarrezko
Ekonomiarako 2023-2024ko Ikasturteko Bizkaia Programako eskatzaile moduan,

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU ZINPEAN:

Ez ditu jaso Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutan edo nazioarteko edozein erakundetan helburu bererako dituzten (deialdiaren xede den master-prestakuntza espezializatua finantzatzea) beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk.

Ez dago Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutan edo nazioarteko edozein erakundetan helburu bererako dituzten (deialdiaren xede den master-prestakuntza espezializatua finantzatzea) beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen **eskabideari buruzko ebazpenaren zain.**

Halaxe agertu dadin, adierazpen hau sinatzen du

_____ (e)n, 2023ko _____ aren ____ (e)(a)n.

(Eskatzailearen sinadura)

III. ERANSKINA
ZINPEKO ADIERAZPENA
JASOTAKO BESTE LAGUNTZA BATZUEN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK:

NAN/AIZ: _____

_____ jaunak/andreak,
_____ zenbakidun NAN/pasaportearen duenak, Zilarrezko
Ekonomiarako 2023-2024ko Ikasturteko Bizkaia Programako eskatzaile moduan,

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU ZINPEAN:

Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutan edo nazioarteko edozein erakundetan helburu bererako dituzten (deialdiaren xede den master-prestakuntza espezializatua finantzatzea) beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk **jaso ditu**.

Zilarrezko Ekonomiarako Bizkaia Programari eskatutako laguntza zenbatekoa den kontuan hartuta, ez du finantzatutako masterraren kostua inolaz ere gainditzen, ez isolatuta ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera. Hori egiaztatzeko asmoz, agiri honetan eranstean dut beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen lorpena, laguntza hori eman didan agintaritzaren eskudunak egindako ziurtagirien kopiaekin batera.

Halaxe agertu dadin, adierazpen hau sinatzen du

_____ (e)n, 2023ko _____ aren ____ (e)(a)n.

(Eskatzailearen sinadura)

IV. ERANSKINA
ZINPEKO ADIERAZPENA
ESKATUTAKO BESTE LAGUNTZA BATZUEN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK:

NAN/AIZ: _____

_____ jaunak/andreak,
_____ zenbakidun NAN/pasaportearen duenak, Zilarrezko
Ekonomiarako 2023-2024ko Ikasturteko Bizkaia Programako eskatzaile moduan,

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU ZINPEAN:

Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutan edo nazioarteko edozein erakundetan helburu bererako dituzten (deialdiaren xede den master-prestakuntza espezializatua finantzatzea) beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk **eskatu ditu, eta ebazpenaren zain dago.**

Zilarrezko Ekonomiarako Bizkaia Programari eskatutako laguntza zenbatekoa den kontuan hartuta, ez du finantzatutako masterraren kostua inolaz ere gainditzen, ez isolatuta ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera. Hori egiaztatzeko asmoz, agiri honetan eransten dut beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen eskabidea, laguntza hori eskatu diodan agintaritza eskudunak eskabideari buruz egindako ziurtagirien edo egiaztatzearen kopiarekin batera.

Halaxe agertu dadin, adierazpen hau sinatzen du

_____ (e)n, 2023ko _____ aren ____ (e)(a)n.

(Eskatzailearen sinadura)